



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko martxoaren 30a

53. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- 10-23/PRO-00007. Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 11/1992 Foru Legea, urriaren 20koa, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- 10-23/PRO-00008. Foru Legea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 10-22/CIE-00001. Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatzeko Batzorde Bereziak egindako txostena (10. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-23/PRO-00007. Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 11/1992 Foru Legea, urriaren 20koa, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 23an egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen foru lege bat, zeinaren bidez aldatzen baita 11/1992 Foru Legea, urriaren 20koa, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzkoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita 11/1992 Foru Legea, urriaren 20koa, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzkoa

HITZAURREA

COVID-19aren pandemia globalak osasun-sistemen ahuleziak agerrarazi ditu gure Foru Komunitatean, gainerako autonomia-erkidegoetan, Europan eta nazioartean. Oso bereziki, oinarrizko osasun-laguntzan. Ikaskizunik garrantzitsuenetariko bat da osasun-sistemak indartu beharra dagoela; batez ere, osasun-zerbitzu publikoak. Zerbitzu horiek giltzarri dira pertsonen osasuna sustatu, artatu, zaindu eta leheneratzeko, bai eta prebentzio-lanerako ere. Erabateko lehenasuntzat daukate herritarrek, eta funtsezkoa da gure gizartearen garapena jasangarria eta koheziozkoa izan dadin. Bidezko da halaber ohartaraztea ezen osasungintzako profesionalek, gainerako oinarrizko zerbitzuetako langileekin batera, burubelardi jardun dutela gure Komunitateko pertsonentzako zerbitzu publikoan eta babes-lanean.

Horrenbestez, arau honek xede du geratzen den legegintzaldi-zati laburrean gure osasun-

zerbitzua, Osasunbidea, indartu eta hobetzea, medikuen kolektiboaren lanbide- eta ordainsari-baldintzak hobetuz, bai eta osasungintzako beste estamentu eta profesional batzuenak ere. Halaber, neurri-multzo bat ezartzen da, bideratuta dagoena oinarrizko laguntzaren egoera berehala hobetzera, partzialki bederen, Oinarrizko Laguntzarako Ekintza Planaren ildo beretik. Aipaturiko neurriak direla-eta kasuko eztabaida, kontsulta eta negoziazioa egin dira kolektibo eta lanbide-nahiz gizarte-erakunde frankorekin, bai eta eragile politiko eta sindikalekin ere.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 b) artikulua arabera, Nafarroak, bere foru araubidearengatik, eskumen eskusiboa du Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidearen gainean, Estatu-ko oinarrizko legediak funtzionario publikoei aitortzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz.

Eskumen eskusibo horri heldurik, erabaki da partzialki aldatzea urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzkoa, honako zertzelada hauetan: egun berezietako lanagatik osagarri bat sortzea, langile fakultatiboentzako produktibitate finkoko osagarri bat sortzea, eta lanpostuko osagarri bat sortzea Oinarrizko Laguntzako Taldeetako eta ospitalez kanpoko larraldien zerbitzuetako administrazio-langileentzat. Kalte-ordain berri bat ezartzen da, lanpostu betegaitzetara lekualdatzeagatikoa, bai eta ordainsari bat ere, prestakuntzan dauden langile egoiliarren gaineko tutoretza egiten dutenentzat. Azkenik, presentzia fisikoko guardien eta guardia lokalizatuen prezioa eguneratzen da, eta destinoko osagarriaren indize berriak esleitzen zaizkie Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldeen zuzendaritzan jarduten diren pertsoneri.

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuko XI. Kapituluaren xedatuari jarraikiz, testua Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionarioen Negoziazio Mahai Orokorreko ordezkari sindikalekiko negoziazio kolektibora ipinia izan da .

Artikulu bakarra. Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea aldatzea.

Ba. Aldatu egiten da 6. artikulua 3. apartatua. Honako testu hau izanen du:

“3. Ordainsari osagarriak dira:

- a) Destinoko osagarria.
- b) Berariazko osagarria.
- c) Ezohiko produktibitateagatiko osagarria.
- d) Kapitazio-osagarria.
- e) Gaueko lanagatiko osagarria.
- f) Jaiegunetako lanagatiko osagarria.
- g) Presentzia fisikoko guardiak edo guardia lokalizatuak egiteagatiko osagarria.
- h) Egun berezietan lan egiteagatiko osagarria.
- i) Langile fakultatiboen produktibitate finkoko osagarria.
- j) Lanpostuko osagarria, Oinarrizko Osasun Laguntzako administrazio-langileentzako”.

Bi. Aldatu egiten da 6. artikulua 4. apartatua. Testu hau izanen du:

“4. Kalte-ordainak eta beste ordainsari berezi batzuk:

- a) Sakabanatze geografikoagatiko gehigarria.
- b) Familia-laguntza.
- c) Konpentsatze-osagarria.
- d) Gastu-ordainak, honako arrazoiengatikoak: zerbitzu-arrazoiak, bidaiak egitea, egoitza-aldaketa dakarren nahitaezko lekualdaketa, edo lanpostu betegaitzera lekualdatzea.
- e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden langileak hautatzeko epaimahaietan parte hartzeagatiko konpentsazioak.
- f) Irakasle aritzeagatiko edo prestakuntza-ikastaroak emateagatiko konpentsazioak.
- g) Aparteko orduak egiteagatiko konpentsazioak.

h) Gizarte-ikerketako lineetan edo programetan parte hartzeagatiko konpentsazioa.

i) Prestakuntzan dauden barne profesional egoiliarrekiko tutore-lanagatiko konpentsazioa”.

Hiru. 15. bis artikulua berria gehitzen da. Hau izanen da artikulua:

“15. bis artikulua.

1. Egun berezietako lanagatiko osagarria ordainduko zaie egun berezietan txanda arruntetako lana egiten duten langile guztiei. Egun berezietat jotzen dira urtarrilaren 1, 5 eta 6a eta abenduaren 24, 25 eta 31.

Artikulu honen ondorioetarako, abenduaren 24 eta 31 eta urtarrilaren 5a diren egun berezietan, aintzat hartuko dira hamalauetatik biharamuneko zortziak arte eginiko lan-txandak, bai eta txanda aldakorrek ere, zeinek goiz eta arratsalde, arratsalde eta gau, eta gau eta goiz tarteak barne hartzen dituzten.

Abenduaren 25 eta urtarrilaren 1 eta 6 diren egun berezietan, aintzat hartuko dira goizeko zortzietatik hogeita biak arte eginiko lan-txandak, bai eta txanda aldakorrek ere, zeinek goiz eta arratsalde, arratsalde eta gau, eta gau eta goiz tarteak barne hartzen dituzten.

2. Aurreko apartatuak zehazten dituen txanden barreneko lanaldia duten langileek ordainsari bat jasoko dute egun bereziko txandan emandako lanordu bakoitzeko, erregelamenduz ezarritako zenbatekoa izanen duena”.

Lau. 15. ter artikulua gehitzen da. Testu hau izanen du:

“15. ter artikulua.

1. Langile sanitarioek, baldin haien estamentu sanitarioak A.1, A.2.5.1etik A.2.5.6ra bitartekoak eta A.2.5.8 badira, produktibitate finkoko osagarria jasoko dute, hamalau ordainalditan banatuta, zeinetatik hamabi arruntak eta bi apartekoak izanen baitira.

Osagarri horrekin ordaintzen dira errendimendu berezia, jarduna, dedikazio arrunta eta lanpostuan jardutearekin zuzeneko zerikusia daukaten gainerako zertzeladak, bai eta lanpostu horri esleiturik baina 11. artikuluan aipatu gabe dauden emaitzen edo helburuen lorpena ere”.

Bost. 15. quater artikulua gehitzen da. Testu hau izanen du:

“15. quater artikulua.

Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldeetako eta ospitaleen kanpoko larrialdien zerbitzuetako admi-

nistrazio-langileek lanpostuko osagarria jasoko dute, nork bere mailaren ehuneko 10ekoa”.

Sei. 22. bis artikulua gehitzen da. Testu hau izanen du:

“22. bis artikulua.

Lanpostu betegaitzak betetzen dituzten Oinarriko Osasun Laguntzako Taldeetako langileek joan-etorrietarako ordainsari bat jasoko dute.

Osasuneko kontseilariaren foru agindu bitartez zehaztuko dira lanpostu betegaitzak, ordainsari hori jasotzeko betekizunak eta horren zenbatekoa, zeina hilabeteroko kopuru finko bat izanen baita.

Hilabete osoa egiten ez bada, edo epe hori edozergatik eteten bada amaitu aurretik, ezarritako kopuruaren zati proportzionala ordainduko da”.

Zazpi. 26. bis artikulua gehitzen da. Testu hau izanen du:

“26. bis artikulua.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan Irakaskuntza Batzordeak espezialitate bakoitzeko tutoretza-zereginetarako hautatzen dituen langileek ordainsari bat jasoko dute egoiliar-izaerako osasun-prestakuntza espezializatua ematearen truke.

Artikulu honi dagokionez, egoiliarren prestakuntzagatik ordainsaria jasoko dute Irakaskuntza Batzordeak tutoretza-zereginetarako hautatuak izan diren Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile izanik beren ardurapean egoiliar gisa gutxienez ere pertsona bat eduki dutenek.

Ordainsaria kopuru finko batek osatuko du, eta maiatzeko nominan ordainduko da, langile egoiliarren prestakuntza-urtealdiaren amaierarekin bat etorritik. Edozein arrazoi dela-eta tutoretza-aldia maiatza baino lehenago eteten baldin bada, ezarritako kantitatearen parte proportzionala ordainduko da.

Ordainsariaren zenbatekoa zehazteko irizpidea izanen da zenbat egoiliar izan dituen bere ardurapean tutoreak: bat, bi, edo hiru edo gehiago”.

Zortzi. Bederatzigarren xedapen gehigarria eransten da, langile fakultatiboen produktibitate finkoko osagarriari buruzkoa. Testu hau izanen du:

“Bederatzigarren xedapen gehigarria.

Langile fakultatiboen produktibitate finkoko osagarriengatik jaso beharreko zenbatekoa hileroko lauhun eurokoa izanen da, hamalau ordai-

nalditan banatua. Arruntak izanen dira horietako hamabi, eta apartekoak, bi.

Kopuru horiek urtero eguneratuko dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kasuko Foru Legeak zehazten duen portzentajearen”.

Bederatzi. Hamargarren xedapen gehigarria eransten da, egun berezietan lan egiteagatik osagarriari buruzkoa. Testu hau izanen du:

“Hamargarren xedapen gehigarria.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 15. bis artikulua eta lege horren erregelamenduzko garapen-araudiak zehazten dituzten baldintzetan egun berezietan lan egiten duten langileek 22 euroko ordainsaria jasoko dute, egun bereziko txandan lanean emandako ordu bakoitzeko.

Kopuru horiek urtero eguneratuko dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kasuko Foru Legeak zehazten duen portzentajearen”.

Hamar. Hamaikagarren xedapen gehigarria eransten da, barneko langile egoiliarren prestakuntzan tutore aritzeko hautatua izateagatik ordainsariari buruzkoa. Testu hau izanen du:

“Hamaikagarren xedapen gehigarria.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 26. bis artikulua zehazten dituen baldintzetan tutoretza-zereginak bete ditzaten Irakaskuntza Batzordeak hautaturiko Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek ordainsari bat jasoko dute, beren ardurapean dituzten pertsona egoiliarren kopuruaren arabera:

Ardurapeko egoiliar batengatik: 1.200 euro.

Ardurapeko bi egoiliarrengatik: 1.440 euro.

Ardurapeko hiru egoiliar edo gehiagorengatik: 1.680 euro.

Ordainsari hori halaber aplikatuko zaie barneko langile egoiliarren prestakuntzarako kreditatuta egonik Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari atxikita dauden osasun-langileei, bai eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari atxikita ez dauden gainerako langileei ere.

Kopuru horiek urtero eguneratuko dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kasuko Foru Legeak zehazten duen portzentajearen”.

Hamaika. Hamabigarren xedapen gehigarria eransten da, lanpostu betegaitzei buruzkoa. Testu hau izanen du:

“Hamabigarren xedapen gehigarria.

Garapen-araudian zehazturiko baldintzetan lanpostu betegaitzak betetzen dituzten Oinarrizko Osasun Laguntzako Taldeetako langileek joan-eterrien gastuetarako ordainsari bat jasoko dute, kasuko eskualdeko eskualde-burutik (Iruñeko, Tuterako eta Lizarrako Osasun Barrutiak) beren lanposturaino dagoen distantziaren arabera, aintzat hartu gabe kasuko langilea non bizi den, eta honako kopuruetan finkatua:

– Egin beharreko distantzia 40 kilometrotik 59 kilometrora bitartekoa izanez gero: 75 euro hilean.

– Egin beharreko distantzia 60 kilometrotik 79 kilometrora bitartekoa izanez gero: 100 euro hilean.

– Egin beharreko distantzia 80 kilometrokoa edo gehiagokoa izanez gero: 150 euro hilean.

Ordainsari hori ez da aplikagarri izanen lanpostu betegaitz bat betetzen duen langilea Oinarrizko Barrutiaren barrenean biziz gero.

Kopuru horiek urtero eguneratuko dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kasuko Foru Legeak zehazten duen portzentajearen arabera”.

Hamabi. Hamahirugarren xedapen gehigarria eransten da, presentzia fisikoko guardiaren prezioa eguneratzekoa. Testu hau izanen du:

“Hamahirugarren xedapen gehigarria.

Presentzia fisikoko guardiak edo guardia lokalizatua egiten dituzten langileek honako ordainsariak jasoko dituzte, beren mailaren arabera:

GUARDIAREN PREZIOA				
	A maila	B maila	C maila	D eta E mailak
Presentzia fisikoa	30,29	18,18	14,53	11,61
Lokalizatua	15,16	9,086	7,24	5,81

Kopuru horiek urtero eguneratuko dira, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kasuko Foru Legeak zehazten duen portzentajearen arabera”.

Xedapen indargabetzailea. Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

10-23/PRO-00008. Foru Legea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2023ko martxoaren 23an egindako Osoko Bilkuran, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2023ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina aldatzen duena

HITZAURREA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1.b) artikulua araberako Foru Komunitate honek, bere foru araubidearengatik, eskumen eksklusiboa du Foru Komunitateko funtzionario publikoen estatutu-araubidearen gainean, Estatuko oinarritzko legediak funtzionario publikoei aitortzen dizkien funtsezko eskubideak eta betebeharrak errespetatuz.

Eskumen eksklusibo hori baliatuz, Negoziazio Mahai Orokorrean akordio bat lortu da sindikatuekin, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina hein batean aldatzeko, gai hauei dagokienez: graduaren erregulazioa, lanbide karrerari dagokion oinarritzko lansari pertsonal gisa, ez da aldi baterakoa izan aurrerantzean, arauaren artikuluetan jasoko baita; gehitzen da igoera txanda murriztuaren parte hartzeko aukera langilea borondatezko eszedentzian egonda ere, deialdia egin duen Administrazio publikoaren beste lanpostu batean zerbitzuak egiten ari denean; lanpostua 18 hilabetez gordeko zaie Administrazio Publiko horretan nahiz beste batean zerbitzuak egiteko borondatezko eszedentzia hartzen duten funtzionarioei; langileen atxikipen esparruaren barruan barne mugikortasuneko

prozesuak bi urtean behin egiteko aukera ezartzen da; bateragarriak izanen dira Administrazio Publiko desberdinetako lanaldi partzialeko bi kontratu edo gehiago, oro har ezarritako lanaldi osoa gainditzen ez bada; lanaldi partzialeko kontratuetan lanaldia murrizteko aukera ezartzen da, murrizketa egin ondoren egiazko lanaldia erregelamenduz onetsitako lanaldi tarteetako bat bada; lanpostuaren jabetza-hartzea geroratzeko kasuak arautzen dira, lizentziaren bat (erditzea, adopzioa, adoptatzeko edo harreraren hartzeko zaintza, edo ama biologikoa ez den gurasoarentzako baimena) hartuta duten izangaiantzat, ukitutako langileek hala nahi badute erabil dezaten; antzinatearen eragindako opor-egun eta norberaren aferetarako baimen-egun gehigarriak jasotzen dira, beste Administrazio Publikoentzako Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutua garatzeko ezarritako baldintza berberetan; eta lanaldia murrizteko gehieneko portzentajea %99,9ra handitzen da minbizia edo beste gaixotasun larri bat duen seme edo alaba adingabe bat zaintzeko lizentzia ordaindua ematen denean.

Artikulu bakarra. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina aldatzea.

Bat. 13. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“13. artikulua.

1. Aurreko artikulua aipatutako maila bakoitzak funtzionarioek aitortutako antzinatearen arabera lor ditzaketan adina gradu izanen ditu.

2. Lehen aldiz sartzen diren funtzionarioak dauden mailako 1. graduaren sartuko dira, non ez dagokien goragoko gradu izatea, aitortua duten antzinatearen arabera.

3. Graduaren hasierako esleipena kasuan kasuko Administrazio Publikoak egiten du, bere langileei antzinatearen ondorioetarako aitortu dizkien zerbitzu urteak kontuan hartuta. Horren ondorioetarako, Nafarroako Administrazio Publiko guztietan, aitortutako zerbitzuetan hartuko dituzte Foru Diputazioak 1981eko urriaren 29an hartutako Erabakian horrelakotzat hartutakoak.

4. Emandako zerbitzuen denbora, antzinatearen ondorioetarako aitortutakoa, dagokion gradua esleitzeko behar dena baino gehiago bada hasierako esleipenean, soberakoa hurrengo gradurako antzinatea gisa kontatuko da”.

Bj. Aldatu egiten da 15. artikularen 1. apartatua. Testu hau izanen du:

“1. Langileak mailaz igo ahal izateko, sartzeko hautapen prozesuetan lanpostu huts batzuk erreserbatuko dira Nafarroako edozein Administrazio Publikotako funtzionarioek txanda murriztuaren bidez betetzeko. Horretarako, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Deialdiko lanpostu hutsak baino maila apalagoak izatea.

b) Deialdian eskaturiko titulazioa izatea eta Administrazio Publikoetan bost urteko antzinatea aitortua duela egiaztatzea.

c) Borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea, salbu eta borondatezko eszedentzian dagoen pertsona zerbitzuak egiten ari baldin bada deialdia egin duen Administrazio beste lanpostu finko edo aldi baterako batean.

d) Hautapen proba horiek gainditzea”.

Hiru. 16. artikularen 1. apartatua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“1. Funtzionarioek graduz-gradu egiten dute gora, gradu bakoitzean 6 urte eta 7 hilabete egin ondotik”.

Lau. 17. artikulua kentzen da.

Bost. 26. artikularen 1. apartatua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“1. Borondatezko eszedentzia deklaratu ahalko da, funtzionarioek eskatuta, ondoko kasu hauetan:

a) Zerbitzuak egiten hasten bada beste Administrazio Publiko batean edo langilearena ez den beste Administrazio baten menpekora den eta berezko nortasun juridikoa duen entitate batean; betetzen zuen lanpostua hemezortzi hilabetez gordeko zaio.

Puntu honetan xedatutakotik salbuetsita gelditzen dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileak, baldin eta modu finkoan lan egiten badute Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko araubidea arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen espezialitateen eranskineko A.1 eta A.2 5 osasun estamentuetako batean. Langile horiek borondatezko eszedentziaren modalitate

hori lortzen ahalko dute bakarrik zerbitzu finkoak ematen hasten badira beste Administrazio Publiko batean edo beste Administrazio baten menpekora den eta nortasun juridikoa propioa duen entitate batean, eta interesduna gutxienez bi urtez jardunean edo egoera parekatuan egon bada, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko A.1 eta A.2 5 osasun estamentuetako batean lanpostu baten jabetza hartzen denetik kontatzen hasita.

b) Lanpostuaren jabetza hartzeko unean zerbitzuak egiten ari baldin bada beste Administrazio Publiko batean.

c) Administrazio Publiko beraren baitan, maila bereko edo desberdineko beste lanpostu bat, unitate organikoko burutza edo zuzendaritza direnak izan ezik, eskuratzen duen funtzionarioak bietako bat aukeratu beharko du, eta beste lanpostuan borondatezko eszedentzian deklaratu eskatzen ahalko du.

d) Horretan interesa duenak hala eskatu ondoren, funtzionarioa borondatezko eszedentzian dagoela deklaratu da Administrazio Publiko berean maila bereko edo desberdineko lanpostu bat aldi baterako betetzen hasten denean, eta ordura arte bete zuen lanpostua gordeko zaio hasierako hemezortzi hilabeteetan.

e) Funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartzeko unean langilea betetzen ari bada Administrazio Publiko berean maila bereko edo desberdineko beste lanpostu bat aldi baterako, funtzionario lanpostuan borondatezko eszedentzian deklaratu eskatzen ahalko du.

f) Alderdi politiko, sindikatu edo lanbide erakundeetan zuzendaritza karguak betetzeko, funtzio publikoan aritzearekin bateraezina badira.

g) Funtzionarioaren interes partikularrengatik. Jatorrizko lanpostua hasierako hemezortzi hilabetez gordeko da, zerbitzuaren beharrek horretarako bide ematen badute eta interesdunak egiaztatzen baldin badu eskaera egin aurreko bi urteetan, gutxienez, jardunean edo egoera parekatu batean aritu dela”.

Sei. 32. bis artikulua gehitzen da. Testu hau izanen du:

“32. bis artikulua.

Nafarroako Administrazio Publikoek barne mugikortasuneko prozesuak deitzen ahalko dituzte bi urtean behin beren zerbitzuan ari diren langileen atxikipen esparruaren barruan, erregelamenduz ematen diren xedapenei jarraikiz”.

Zazpi. 42. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“42. artikulua.

Graduari dagokion ordainsaria kasuan kasuko mailako hasierako soldataren ehuneko 9ko porzentaje metagarria izanen da.

1. graduagatik ez da ordainsaririk jasoko”.

Zortzi. 57. artikulua 3. apartatua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“3. Estatutu honen aplikazio-eremuan dauden funtzionarioek ezin izanen dute soldata bat baino gehiago jaso Administrazio, Entitate edo Erakunde Publikoen, edo horien menpeko entitate eta enpresen aurrekontuen kargura, unibertsitateetan irakaskuntza lanak egitearen ondoriozkoak izan ezik.

Debeku hori ez zaie aplikatuko lanaldi partzialeko kontratua duten langileei, eta kontratu bat baino gehiago izaten ahalko dituzte Administrazio Publiko desberdinetan, baldin eta gainditzen ez bada oro har ezarritako lanaldi osoa.

Ondorio horietarako, soldatatzat hartuko da aldizkako ordainsari oro, edozein izanik horien zenbatekoa eta izena”.

Bederatzi. 59. artikulua 3. apartatua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“3. Erregelamendu bidez zehaztuko dira funtzionarioei lanaldiaren murrizketa onartzeko kasu eta baldintzak; haien ordainsariak proportzioan murriztuko dira. Murrizketa aplikatu ondoren, egiazko lanaldia oro har ezarritako lanaldiaren murrizketa motak, erregelamenduz onetsi direnak, aplikatzean ezarri diren lanaldi tarteetako bat izan beharko da.

Salbuespenez, genero indarkeriaren biktima diren emakumezko funtzionarioen ordainsariak osorik jasoko dira lanaldia heren bat edo gutxiago murrizten dutenean”.

Hamar. Bigarren xedapen iragankorra kentzen da.

Hamaika. Laugarren xedapen iragankorra kentzen da.

Hamabi. Hemeretzigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Hemeretzigarren xedapen gehigarria.

1. Funtzionario izateko lanpostuaren jabetza hartzea edo langile lan-kontratudun finko izateko kontratua sinatzea geroratzen ahalko dute lizentziaren bat (erditzea, adopzioa, adoptatzeko edo

harreran hartzeko zaintza, edo ama biologikoa ez den gurasoarentzako baimena) hartuta duten izangaiek. Kasu bakoitzean, geroratzeak etenik gabe hartzen ari den aldia amaitu arte iraunen du.

2. Izangaiek geroratzea erabakitzen badu, lanpostuaren jabetza hartzeko edo kontratua sinatzeko epea zenbatzen hasiko da interesdunak erditze, adopzio edo adoptatzeko edo harreran hartzeko zaintzagatik duen lizentzia edo baimena etenik gabe hartzen ari den aldia amaitu eta gero, edo lehenago, baldin eta interesdunak hala eskatzen badu. Nolanahi ere, erditzearen ondoko nahitaezko atsedenaldia errespetatuko da.

3. Kasu horietan, dagokion Administrazioan emandako zerbitzu gisa aitortuko da lanpostuaren jabetza hartzeko edo kontratua sinatzeko gerorapenaren epe hori. Funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartzeak edo langile lan-kontratudun finko gisa kontratua sinatzeak baldintzatuko dute aitopen hori, eta horiek gertatzen direnetik hasita izanen ditu ondorioak.

4. Aurreko apartatueta ezarritakoa aintzat hartuko da aldi baterako kontratazioak egiteko deialdietan, kontratazio horren berariazko ezaugarriek eragindako egokitzapenekin”.

Hamahiru. Hogeita hirugarren xedapen gehigarria gehitzen da:

“Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Antzinasunak eragindako opor-egun eta norberaren aferetarako baimen-egun gehigarriak.

1. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioek eskubidea izanen dute lau opor-egun gehigarri hauek izateko: lehena, hamabost urteko antzinasuna betetzean, eta gainerakoak hogeitau urtekoa, hogeita bost urtekoa eta hogeita hamar urtekoa betetzean, hurrenez hurren.

2. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioek eskubidea izanen dute norberaren aferetarako baimen ordainduko bi egun gehigarri izateko hemezortzi urteko antzinasuna betetzean; horri beste egun bat gehituko zaio 24 urteko antzinasuna betetzean eta beste bat hortik aurrera betetzen diren hiru urteko.

3. Aurreko apartatuak aplikatuta ateratzen diren opor-egun eta norberaren aferetarako baimen-egun gehigarriak gehituko zaizkie jardunean emandako urte oso bakoitzean sortzen direnei. Zerbitzualdia txikiagoa denean, antzinasunak eragindako opor-egun eta norberaren aferetarako baimen-egun gehigarrien kopurua proportzioan dagozkionak izanen dira”.

Hamalau. Hogeita laugarren xedapen gehigarria gehitzen da.

“Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Lanaldi murrizketaren gehieneko portzentajea aldatzea, minbizia edo bestelako gaixotasun larria duen seme edo alaba adingabe bat zaintzeko lizentzia ordainduan.

Funtzionarioek eskubidea izanen dute lanaldia erdira murrizteko, ordainsarrietan murrizketarik izan gabe, minbizia edo bestelako gaixotasun larria duen seme edo alaba adingabe bat zaintzeko, baldin eta zuzeneko zainketa etengabe eta iraunkorra beharrezkoa badu gaixotasunaren tratamendu jarraituan zehar, alde zuzenetik ospitaleratzeko beharra izanik nahiz izan gabe. Salbuespenez, lanaldiaren murrizketa ehuneko 99,99koa izan daiteke gehienez, modu egokian frogatzen bada hura beharrezkoa dela lizentziaren helburua betetzeko”.

Xedapen gehigarri bakarra. Lanbide-karrera arautzeko arau-esparru baten proposamena.

2023an, eta langileen legezko ordezkari-tzarekin batera, egun lanbide-karrera aitortuta ez duten langileen karrera arautzeko arau-esparru baten proposamen bati ekinen zaio, eta hura pixkanaka ezartzei ere, behar besteko aurrekontu-zuzkidura dagoen heinean.

Lehen xedapen iragankorra. Funtzionarioentzako barne igoerako txanda murriztuan parte hartzeko baldintza berrien aplikazioa.

Barne igoerako txanda murriztuan parte hartzeko baldintzen arau berriak foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera argitaratzen diren deialdietan aplikatuko dira.

Bigarren xedapen iragankorra. Antzintetasunak eragindako opor-egun eta norberaren aferetarako baimen-egun gehigarrien aplikazioa 2023an.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarriaren 3. apartatua xedatutakoa galarazi gabe, 2023. urte osoan jardunean egonen diren langileek urte horretan hartzen ahalko dituzte antzintetasunak eragindako opor-egun eta afera partikularretarako baimen-egun gehigarri guztiak, xedapen gehigarri horren lehen bi apartatuak aplikatuta dagozkienak.

Xedapen indargabetzailea. Arauak indargabetzea.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Minbizia edo beste gaixotasun larri bat duen seme edo alaba adingabe bat zaintzeko lizentzia ordainduaren gaineko arauak aldatzeko gaikuntza.

Gaikuntza ematen zaio Nafarroako Gobernuari onets ditzan, erregelamendu mailako arau baten bidez, minbizia edo beste gaixotasun larri bat duen seme edo alaba adingabe bat zaintzeko lizentzia ordainduaren gaineko arauetan egiten diren aldaketak.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru-lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-22/CIE-00001. Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatzeko Batzorde Bereziak egindako txostena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko martxoaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatzeko Batzorde Bereziak igorritako txostena ikusita, ERABAKI DA:

1. Aipatu txostena jasotzat ematea eta xedatzea horren aurkezpena hurrengo Osoko Bilkuran egingen dela.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatzeko Batzorde Bereziak egindako txostena

2022ko urriaren 14an eratu zen Nafarroako Parlamentuaren baitan Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatuko dituen Osasuneko Batzorde Berezia.

Bilkura horretan, Fanlo Mateo andrea hautatu zen Batzorde Bereziako buru.

2022ko urriaren 24an, Batzordeak aurkeztutako lan-egitasmoa onetsi zuen, eta erabaki zen Osasun Departamentuari eskatzea Osasun Foru lege berri baterako proposamenekin loturik zeukan informazio guztia helarazteko, bai eta zenbait pertsonen agerraldia eskatzea ere: Luis Gabilondo Pujol jauna eta Juan Luis Beltrán Aguirre jauna (Osasunari buruzko Foru Lege berriaren printzipio gidariak I), Abel Novoa jauna eta José Manuel Freire jauna (Osasunari buruzko Foru Lege berriaren printzipio gidariak II), José Ramón Repullo jauna eta Álvaro Iruin jauna (arreta integratuko kudeaketa-eredua), Rafael Bengoa jauna eta María Victoria Mateo García andrea (osasun

publikoko kudeaketa-eredua) eta Juan Erviti López jauna eta Isolina Riaño Galán andrea (iker-keta eta berrikuntzaren kudeaketa-eredua).

María Victoria Mateo García andreak, Isolina Riaño Galán andreak eta Abel Novoa jaunak uko egin zioten batzordean agerraldia egiteari.

2022ko azaroaren 21ean, lan-egitasmoaren aldaketa onetsi zen, ikusirik gonbidatuetako batzuek uko egin ziotela batzordean agerraldia egiteari. Hortaz, agerraldiak aldatu eta honela geratu ziren: Luis Gabilondo Pujol jauna eta Juan Luis Beltrán Aguirre jauna (Osasunari buruzko Foru Lege berriaren printzipio gidariak I), José Manuel Freire jauna eta José María Uribe jauna (Osasunari buruzko Foru Lege berriaren printzipio gidariak II), José Ramón Repullo jauna eta Álvaro Iruin jauna (arreta integratuko kudeaketa-eredua), Rafael Bengoa jauna eta Margarita Echauri Ozcoidi (osasun publikoko kudeaketa-eredua), Juan Erviti López jauna (iker-kuntzako kudeaketa-eredua) eta Lucía Artázcoz Lazcano (generoa osasun arloan).

Egun horretan bertan egin zuten agerraldia Luis Gabilondo Pujol jaunak eta Juan Luis Beltrán Aguirre jaunak, azaltzeko euren ustez zeintzuk izan beharko luketen Osasunari buruzko Foru Lege berriaren printzipio gidariak.

2023ko urtarrilaren 9an agerraldia egin zuten José Manuel Freire jaunak eta José María Uribe jaunak, azaltzeko euren ustez zeintzuk izan beharko luketen Osasunari buruzko Foru Lege berriaren printzipio gidariak.

2023ko urtarrilaren 30ean agerraldia egin zuten José Ramón Repullo jaunak eta Álvaro Iruin jaunak, arreta integratuko kudeaketa-ereduei buruz informatzeko.

2023ko otsailaren 6an agerraldia egin zuten Rafael Bengoa jaunak eta Margarita Echauri andreak, osasun publikoko kudeaketa-ereduei buruzko informazioa emateko.

Azkenik, 2023ko otsailaren 20an agerraldia egin zuten Juan Erviti López jaunak, ikerkuntzako kudeaketa-ereduei buruzko iritzia emateko, eta Lucía Artazcoz Lazcano andreak, osasun arloan generoaz informazioa emateko.

Otsailaren 24an, batzordeak bilkura egin zuen txosten-proposamena eztabaidatzeko.

Eztabaidan eledun guztiek hartu zuten parte, eta txostena onetsi zen PSN, Geroa Bai eta EH Bildu talde parlamentarioen, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkartearen eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren aldeko botoekin eta Navarra Suma talde parlamentarioaren aurkako botoekin.

TXOSTENA

Osasunari buruzko foru lege berri baten oinarriak

I. ESPAINIAKO OSASUN ARLOKO POLITIKETAN IZANDAKO ALDIAK 1978KO KONSTITUZIOA ONETSI ZENETIK

Lehen aldia. 1986ko Osasunari buruzko Lege Orokorra eta 1990eko Osasunari buruzko Foru Legea.

Lege horien xedea izan da osasun sistema unibertsal, publiko, doako eta zerga bidez finantzaturiko bat eraikitzea.

Bigarren aldia.

Fase honen ezaugarria da doktrina neoliberala osasun arloko politiketan izandako eragina. 1991ko txostenak, Osasun Sistema Nazionala kudeatzeko era berriak gaitzeari buruzko apirilaren 25eko 15/1997 Legeak eta 16/2012 Errege Dekretuak unibertsaltasunaren eta doakotasunaren planteamenduak hausten dituzte. Sistemaren finantzaketa ez zen nahikoa izan.

Gainera, zerbitzuak kanpoan kontratatzea areagotu zen, haiek modu pribatuan kudeatzeko, eta lankidetzak publiko-pribatua bultzatu zen. Nafarroan, Osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzko 131/2012 Foru Dekretua onetsi zen.

Garai horretan akutuen osasun-laguntzatik kronikoen osasun-laguntzara pasa zen, eta COVID-19aren pandemiak geroztik harreman kliniko presentzialetik urruneko harreman kliniko batera igaro da.

Ondorioak: Beharrezkoa da oinarritzko osasun-laguntza, osasun komunitarioa eta osasun publiko indartzea. Lehentasuna eman zaio indibidualari kolektiboaren aldean, eta sendatzeari

prebentzioaren eta alor emozionalaren aldean. Ospitalezentrismoa.

Hirugarren etapa.

Uztailaren 27ko 7/2018 Errege Dekretuak, COVID-19aren pandemiak eta aurreikusten den O-NOZerako ekitate lege-proiektuak helburu dute laurogeiko hamarkadako jatorrirako itzulera sustatzea, osasun-zerbitzu unibertsal, doako eta Osasun Zerbitzuak zuzenean kudeatutakoa bultzatzea, eta osasun pribatuarekiko lankidetzak salbuespenezko kasuetarako geratzea.

Bigarren etapan, 90eko hamarkadako bi araudi dira nabarmentzekoak Nafarroan, erabiltzaile eta pazienteen eskubide eta betebeharreri buruzkoa bata, eta osasun-langileen funtzionario-araubidea bestea; hori dela eta, ez du ematen beharrezkoa denik lege berriak gai horiek erabat arautzea. Gehienez ere, kontu zehatzak hartuko beharko lituzke aintzat.

Hala, foru lege berriak soilik zati organiko bat eta zati funtzional bat izan beharko lituzke, eta izen hau izan ahalko luke: Nafarroako Osasun Sistema Publikoaren Antolamenduari buruzko Foru Legea.

1990eko Osasunari buruzko Foru Legearen xedea Nafarroako Osasun Sistema Publikoa eraikitzea bazen, foru lege berriaren xedea ez da sistema eraikitzea, hobetzea baizik. Legeak honako helburu hauek izan behar ditu: Nafarroako Osasun Sistema Publikoaren kalitatea, integritasuna eta ekitatea, bai eta haren finantzaketa egozki ere.

II. LEGEAK JASO BEHARREKO PRINTZIBIO GIDARIAK

- Osasunaren kontzepzio holistikoa (osotasuna aldean batuketa baino zerbait gehiago da) eta positiboa.

- Integritasuna, pertsona bakoitzaren alderdi biologikoa, psikikoa eta soziala aintzat hartuta.

- Osasuna politika guztietan, lehentasuna eman sektoreen arteko esku-hartzea komunitarioari osasun determinante kolektiboak ikusirik.

- Osasun-sistema publiko unibertsalaren defentsa.

- Ekitatea, lurraldeen arteko elkartasuna eta elkartasun soziala eta berdintasuna eraginkorra haren prestazioak eskuratzekoan.

- Herritarren ahalduntzea eta erantzunkidetasuna beren osasunaren zaintzan.

- Gardentasun- eta kontuak emate-printzipioa:

- Osasun-langileen eta kudeatzaileen erantzukizuna eta profesionaltasuna.

- Emaizetan zentratutako ebaluazioa.

- Teknologia berrien eta farmaziaren eraginkortasunaren eta efizientziaren kontrola indartzea.

- Osasun-laguntza humanizatzea. • Pertsona erdigunean jartzen duten laguntza sanitario eta soziosanitarioaren arreta- eta antolamendu-eremuak.

- zerbitzuen erabilera arrazionala, beharra oinarri hartuta.

- Arretaren eskuragarritasuna eta arintasuna.

- Oinarrizko osasun-laguntza, osasun publikoa eta osasun komunitarioa Nafarroako Osasun Sistema osoaren ardatz.

- Osasun-sistema publikoaren modernizazioa eta kudeaketa efizientea.

- Profil eta estamentu profesional guztiak indartzea.

- Langileen alorreko politika proaktiboa, inplikazioa eta profesionalen gogobetetzea ahalbidetuko dituen.

- Herritarren, langileen eta pazienteen parte-hartze eta inplikazio aktiboa prozesuen eta zerbitzuen berrikuntzan eta etengabeko hobekuntzan eta osasun-sistema publikoaren kalitatean eta jasagarritasunean.

- Teknlogiek eta informazio eta komunikazio sistemek eskaintzen dituzten aukerak baliatzea, aurreko apartatuetan ezarritakoak erdiesteko lagungarri gisa eta pertsonen arreta bermatzeko garapen teknologikoaren aurretik.

- Nafarroako Osasun Publikoaren Sistemak bere gain hartzea mendekotasuna dutenen eta talde zaugarrienen arretarako eskubide sozialetako baliabideak.

- Ikerketa bultzatzea Nafarroako Osasun Publikoaren Sistemaren maila guztietan.

1. Osasun arloko politika kolektiboak eta ekitatea.

- Unibertsalizazioa. Herritartasun sanitarioa.

- Ekitatea osasun mailetan, talde babesgabeen lagunduz.

- Berdintasun eraginkorra prestazioak eskuratzeko. Koordainketarik ez.

- Lurralde-ekitatea.

- Osasunaren kontzepzio biopsikosoziala eta ekologikoa.

- Osasun publikoaren eta komunitarioaren erabateko lehentasuna.

- Osasuna politika guztietan, lehentasuna emanez sektoreen arteko esku-hartzea komunitarioari osasun determinante kolektiboak ikusirik.

- Osasun politika integralak lan ingurunean.

- Alerta goiztiarrerako eta erantzun azkarrerako sistemak, era parte-hartzailean planifikatuak.

- Mugak eta zehapenak osasun publikoaren defentsan.

2. Herritarren ahalduntzea.

- Ahalduntzea, autonomia, erabaki askerako aukera handiagoa.

- Herritarren eskubideak modu eraginkorrean baliatzeko berme-sistemak zehaztea.

- Itxaronaldiekiko arreta berezia. Lehentasun klinikoa ezartzea.

- Langileen betebeharrak eskubideak bermatzeko. Laguntza pertsonalizatua.

- Pazientea artatzeko zerbitzuak, herritarren eskubideak sustatzeko eta haien betetze-mailaren etengabeko ebaluazioa egiteko programa proaktiboak dituztenak.

- Bitartekotza- eta gatazkak konpontzeko sistemak.

- Pazientea artatzeko sistema proaktiboak.

- Laaguntza humanizatzeko eta pazientearen informazioa hobetzeko programak.

3. Ardurakidetzeta eta zerbitzuen erabilera arrazionala.

- Herritarren eta langileen ardurakidetzeta baliabide publikoen erabileran.

- Politika aktiboak, herritarrak sentsibilizatu eta ahalduntzeko euren osasunaren zainketan eta zerbitzu publikoen erabilera arrazionalan. Autozainketa. Osasun Eskola, erabilera gidak, besteak beste.

- Prebentziarako eta baliabide eta prestazio sanitario publikoen erabilera desegokiaren kontrolerako programa berariazkoak.

- Medikamentuak arrazionaliki preskribatu eta erabiltzea. Farmazia gastuari eustea.

- Ebidentzian oinarritutako medikuntza. 2.0 historia klinikoa, klinikarako laguntza-sistemak dituen.

- Protokoloak, gidak eta “To do”, “Not to do” gomendioak.

- Erabilera arrazionalaren etengabeko ebaluazioa.

4. Laguntza integrala eta laguntza soziosanitaria.

- Laguntza integrala eta laguntza soziosanitaria, foru lege berriaren nortasun-ezaugarriak.

- Laguntza integralerako eta antolamendu sanitario eta soziosanitarioaren eredu berriak, pertsona ardatz dutenak.

- Osasun mentalerako estrategien erabateko garapena, bai eta eremu horretan aurreikusitako egitura soziosanitarioena ere.

- Hauskortasunaren detekzio goiztiarrerako eta gaitasun funtzionala eta Hobetzeko programaren erabateko garapena.

- Laguntza soziosanitario publikorako estrategia prestatu eta garatzea.

- Baliabide publikoen bidez emandako laguntza soziosanitarioaren aldeko apustua.

- Mendekotasuna dute pertsoneri eta sozialki zaugarrienak diren taldeei ematen zaien laguntzaren kalitatearen kontrol publikoa, zehatzeko eskumenarekin.

- Koordinazio soziosanitarioaren egitura indartzea.

- Etxez etxeko laguntza soziosanitario integrala bultzatzea.

- Egoitzetako osasun-laguntza ordenatzea.

- Esku-hartze komunitarioko kontseilu soziosanitarioak sortzea.

- Barruti sanitarioak eta soziosanitarioak, oinarrizko osasun-laguntzaren sostengurako zerbitzu integratu berriak pixkanaka garatzeko eta zenbait ospitale-zerbitzu deszentralizatzeke.

5. Oinarrizko laguntza ahaldundua.

- Oinarrizko osasun-laguntza ahalduntzea. Prozesuen kudeaketarako egiazko ahalmena.

- Aitortzea osasun-sistemaren aurrean paziente bakoitzaren agente nagusi gisa duen eginkizuna.

- Finantzaketa finalista eta egokia ziurtatzea.

- Profil profesional desberdinen eginkizunak arautu eta zabaltzea, haien gaitasun-mailara egokitzeko:

- Oinarrizko osasun-laguntzako Medikuntzako eta/edo Erizaintzako titulua duten langileei eginkizun eta ardura berriak ematea eta osasun-sistemaren aurrean paziente bakoitzaren agente gisa duten eginkizuna indartzea.

- Erizain, osasun arloko gizarte-langile eta bestelako profil profesionalen eginkizunak eta ardura zuzenak indartzea.

- Oinarrizko osasun-laguntzako taldeei osasun administrazioko langileen profil profesionala ematea, eskaeraren hasierako sailkapena egiteko gaikuntza egokiarekin.

- Langile zaugarrienei eta ordezkariak sindikalik ez duten enpresa txikiei lan arloko osasun-laguntza emateko aukera aztertuko da.

- Laguntza pediatrikoa bermatzea.

- Oinarrizko osasun-laguntzan fisioterapia eta laguntza psikologikoa garatzea.

- Talde komunitarioak garatzea, psikologoaren figura profesionala barne hartzen dutenak.

- Pertsonari zuzendutako laguntza integratuko estrategien eta laguntza-eredu berrien hedapena indartzea ikuspegi soziosanitarioarekin: Gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen estrategia, gaixotasun akutuak, gaitasun funtzionala, hobekuntza plana, haurren arreta integrala, eta abar.

- Oinarrizko osasun-laguntzaren eginkizun komunitarioa bultzatzea.

- Nabarmen areagotzea osasun arloko etxez etxeko laguntza eta laguntza soziosanitaria.

- Bermatzea hala behar duten prozesuak egunean bertan artatzen direla.

- Larrialdien eta garraio soziosanitarioaren sare publiko integratua, bizi-larrialdien eta denboraren mendekoak diren larrialdien arretari lehentasuna emanen diona.

6. Pertsonarengan ardazturiko ospitale-antolamendua.

- Ospitaleratzearen ordezeko aukerak.

- Eremura irekitako ospitalea, oinarrizko osasun-laguntzarekin koordinatu eta hari egiazko sostengua emanen diona:

- Eskaera handiko zerbitzu jakin batzuk barrutira deszentralizatzea.

- Laguntza-prozesu integratuak.

- Oinarrizko osasun-laguntzaren euskarritarako aurrez aurre egindakoak ez diren

interkontsulten eta telemedikuntzako zerbitzuen garapena orokortzea.

– Etxez etxeko ospitaleratzea eta zainketa aringarriak oinarrizko osasun-laguntzarekin koordinatzea.

• Pazienteari zuzendutako barne-antolamendua:

– Bereizmen handiko zirkuitu eta prozesuak, ahalik eta gehien laburtze aldera diagnostikoen borak eta erabaki terapeutikokoak.

– Diziplina eta estamentu anitzeko eremu kliniko eta unitateak sortzeko eta horien funtzionamendurako irizpideak, pazienteen profil zehatz bat aintzat hartzen duen arreta mediko-kirurgikoa eta zainketena emateko.

• Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko foru dekretua garatzea.

• Prozesuak / Osasun planean lehenetsitako patologiak.

7. Emaizetara bideratutako antolamendua. Kalitate integrala.

• Helburuen arabera antolamendua eta Emaizetan zentratutako ebaluazioa.

• Kalitate integrala kudeatzeko eta ebaluatzeko sistema (kalitate tekniko, hautemandako kalitatea eta efizientzia soziala).

• Emaizten zentrala.

• Kalitatearen kanpo-ebaluazioa egiteko agenzia.

• Klinikari laguntzeko aginte taula.

• Kudeaketako aginte taula.

• Arretaren segurtasuna ebaluatzeko sistemak. Ondorio kaltegarriak adierazteari buruzko berriazko araudia. Ospitaleak, herritarrak.

8. Tresna estrategikoak.

1. Finantzaketaren orientazio estrategikoa.

• Finantzaketa nahikoa eta egokia, Nafarroaren antzeko per capita errenta duten Europako beste herrialde batzuen batezbestekoaren adinekoa.

• Aitortutako prestazioen eta eskubideen mailarekin bat datorren finantzaketa.

• Finantzaketaren orientazio estrategikoa, Osasun Plan Estrategikoarekin bat datorrena:

– Hainbat urtetarako agertoki ekonomikoa.

– Aurrekontu finalistak Oinarrizko Osasun Laguntzarako eta Osasun Publikorako.

• Hautatutako prestazioen efizientzia sozialaren bermea.

• Emaizetara zuzendutako zentroyen finantzaketa.

• Farmazia gastuari eustea.

2. Langile politika proaktiboa.

• Langile politika proaktiboa.

• Lan-harremanen esparru berria.

• O-NOZeko Gobernu Kontseiluaren eskumenak handitzea.

• Mahai sektorialak negoziazio kolektiborako dituen eskumenak handitzea.

• Eskumenak, profil profesionalak eta ordainsari-mailak egokitzea.

• Enpleguaren kalitatea eta egonkortasuna.

• Hobekuntza profesionalak, bai eta ordainsariei buruzkoak ere, osasun arloko profesionalak erakarri eta atxikitzeko.

• Aitortza-sistemak aplikatzea langileei eta laguntza-taldee, beren gain hartutako arduren eta lortutako emaitzen arabera.

• Estaltzeko zailak diren destino, postu eta lan-txandak iraunkortasunez betetzea aitortzea.

• Profil eta hautaketarako berriazko betekizunak adostea trebakuntza espezifikoko arloetarako.

• Profil eta estamentu profesional guztien eskumenak indartu eta aitortzea.

• Garapen profesionala eta ezagutzaren kudeaketa.

3. O-NOZen modernizazioa eta kudeaketa efizientea.

• O-NOZen izaera juridikoa berraztertzea, guxtienez izan dezan zuzenbide publikoaren esparru juridikoak ahalbidetzen duen kudeaketa-autonomiarik zabalena, Nafarroako Gobernuaren eta Osasun Departamentuaren jarraibideen mende egonik.

• O-NOZen ondare, kontratu, aurrekontu, kontabilitate publiko eta kontrol finantzarioari buruzko araubidea egokitzea. Araubide hori berriaz ezarriko da osasunari buruzko foru lege berrian.

• Bere gain hartzea plangintza, antolamendua eta giza baliabideen kudeaketa horretarako egokitutako eskumenekin, salbu Nafarroako Gobernuarentzat berriaz gordetakoak.

• O-NOZen egoera-orri finantzarioak finantza-eta aurrekontu-kontabilitateari buruzko arauen

mende, eragotzi gabe Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak Foru Komunitateko aurrekontu orokorrak prestatu eta likidatzeko ezarritako prozeduren aplikazioa.

- O-NOZen kontrol ekonomikoa. Kontrol finantzario iraunkorraren modalitateen bidez eginen da.

- Kontabilitate Analitikoaren sistema xehaketa.

- Autonomia kontratazio-araubideari eta erosketa-politikari dagokienez.

- O-NOZek bere gain hartuko ditu osasun arloak berariazkoak dituen informazio-sistemak eta aplikazio informatikoak mantendu eta kudeatzeko eskumenak.

- Zuzendaritza-langileen profesionalizazioa. Profilak zehaztea eta deialdi irekien bidez hautatzea.

- Deialdi publiko eta ebazpen garden bidezko hautaketa-sistemak, ekitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak aplikatuta. Zentroko Gobernu Batzordeak izendatuko du Hautapen Batzordea.

- Bete beharreko postuaren ardura-mailari egokitutako alde aurreko prestakuntza eta esperientziari buruzko eskakizunak.

4. Laguntza-kudeaketaren eredu berriak.

Osasun zentroak kudeatzea:

- Titulartasun eta kudeaketa publikoa, nortasun juridiko propiorik gabe baina kudeaketarako autonomia zabalarekin.

- Kudeaketa-organo parte-hartzaile eta exekutiboak.

- Kontratu programa.

- Helburuak eta finantzaketa lurralde-eremuko populazioaren arabera ikuspegiarekin zehaztuko dira.

- Populazioa oinarri duen lankidetzaren eredu. Helburu eta xede komunak zentroen eta mailen artean.

- Helburuen lorpenari progresiboki loturiko zuzenketa-faktoreak diruen finantzaketa.

- Ebaluazio-eredu ez-lehiakorra. Ebaluazioen emaitza publikoak.

Laguntza-taldeen kudeaketa:

- Profesionalen parte-hartze aktiboa laguntza-taldeen antolaketa eta kudeaketan.

- Osasun arloko profesionalismoa.

- Pertsonarengan ardazturiko arretarako lankidetzaren eredu, zerbitzuen, unitateen eta laguntza-mailen arteko lankidetzaren sustatutako duena.

- Diziplinarteko eta estamentuarteko laguntza-talde funtzionalak pixkanaka garatzea, egitura organikoa mantentzea galarazi gabe.

- Unitate organikoetako pertsona arduradunen hautaketa garden, profilak alde aurretik zehaztuta, berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideen arabera.

- Berariazko kudeaketa-itunak, kudeaketarako inplikazio eta autonomia maila progresibo eta borondatez onartutakoekin.

- Ebaluazio-eredu kolaboraziozkoa (positiboa), adostutakoa, garden eta ponderatua, protagonismo nagusia arretaren kalitateari eta osasun arloko emaitzei emanda.

5. Informazioaren teknologien garapen zabala.

- Historia kliniko elektronikoa bakarra.

- Historia klinikoa mugikor bidez eskuratu ahal izatea etxetik etxera eta zainketa intentsibo mugikorren arretarako.

- Historia klinikotik laguntza-sistemak eta ebidentzia klinikoak eskuratu ahal izatea.

- Konfidentzialtasuna eta datuak eskuratzeko arauak. Kontrolak eta ikuskapenak egiteko sistemak.

- Informazioaren segurtasunerako sistemak. Zaintza, erredundantzia, eta abar.

- Errezeta elektronikoa.

- Osasun karpeta pertsonala.

- Pazientea modu ez-presentzialean artatzeari buruzko araudia.

- Profesionalen arteko kontsulta ez-presentzialak.

- Telekonsulta, telemonitorizazioa, telerradiologia, eta abar...

- Emaitzen ebaluazio-sistemak automatizatzea. Aginte-taulak, eta abar.

- Osasun Departamentuaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren datu-base eta aplikazio komunak integratzea.

- Modu parte-hartzailean integratutako informazio-sistemen definizioa, herritarrak eta Osasun Sistema Publiko osoko profesionalak (Lan Osasunaren Institutua, Osasun Departamentua...) aintzat hartuta.

6. Garapen profesionala eta ezagutzaren kudeaketa.

- Urte anitzeko prestakuntza plana, helburu estrategikoei zuzendua.

- On line prestakuntza eta simulazio medikoen garapena. Paziente bakoitzarekin errespetuz jarduten ikastea.

- Ezagutza kudeatzeko eta zabaltzeko programa. BIT, anakak.

- 2.0 historia klinikoa, klinikarako laguntza-sistemeekin.

- Irakaskuntza-hitzarmenak.

- Laguntza, irakaskuntza eta ikerketarako karrera mistoaren garapena NUPeko Medikuntza, Erizaintza, Psikologia fakultate berriarekiko lankidetzaren testuinguruan.

- I+G+Bren finantzaketa, urteko aurrekontuaren ehuneko 2ra iritsi arte. Zientziaren Legea).

- Osasun arloko ikerketa publikoa sustatzeko programa.

- Merezimenduen baremoetan eta kudeaketa objektiborako itunetan behar den garrantzia ematea ikerketa-eta berrikuntza-jarduerei.

- Ikertzaile klinikoaren figura sortzea.

- Datuetarako sarbidea ikerketa eta berrikuntzarako.

- Miguel Servet-Navarrabiomed Fundazioaren eta Nafarroako Osasun-ikerketarako Institutuaren erreferentzia.

- Berrikuntzarako estrategia eta erosketako publiko berritzailea, teknologia berrien klusterra, eta abar.

7. Partaidetza, gardentasuna eta gobernantza publikoa.

Gobernamendu ona.

- Gobernu ona eta gobernu irekia, 11/2012 Foru Legearekin bat.

- O-NOZen gardentasun, etika eta gobernu onaren kode berriazkoa.

Gardentasuna eta kontu-ematea.

- Informazio publikorako eta kontuak emateko tresnak.

- Informazio publikorako unitate organikoa.

- Informazio-sistema integratua.

- Emaizten zentrala.

- Gobernu- eta partaidetza-organo guztien aktak argitaratzea.

- Gardentasun publikoari buruzko araudia.

Etika.

- Bioetikako aholku kontseilua eta laguntza-batzordeak.

- Interes-gatazken eta bateraezintasunen aitorpena.

- Kontzientzia eragozpena.

Parte-hartzea.

- Gobernu-organo kide anitzekoak eta eta partaidetza dutenak.

- Baterako kudeaketa-organoak osasun-zentrotan.

- Partaidetza-organoak osasun arloko plangintza eta antolamenduan.

- Nafarroako Osasunaren Kontseilua.

- Barrutiko eta eremuko osasun kontseiluak.

- Aholkularitzako eta parte-hartze profesionalerako batzorde eta talde teknikoak.

- Parte-hartze zuzenerako bide eta sistemak.

- Herritarren arretarako zerbitzuak.

- Nafarroako Gobernuko Gobernu Irekiaren Ataria.

- Osasun Ataria, Osasun departamentuaren gune berriazkoa.

- Informaziorako eta osasun arloko aholkularitzarako kanal anitzeko zerbitzua.

- Herritarren parte-hartzerako eta lankidetzarako erregistroa.

- Osasun arloko foroak: Profesionalen eta pazienteen arteko eztabaida gai bati buruzko hobekuntza-proposamenak egiteko.

- Herritarren epaimahaiak: Erabaki jakin baten egiazko emaitza baloratzeko.

III. LAGUNTZA INTEGRATUAREN KUDEAKETA

- Osasungintzaren sektorearentzako esparru instituzional bat ezartzen duten legeen arauasmoak eta espazioak mugatzea.

- Osasun Sistema Nazionalaren testuingurua gogoan izatea. Osasun-zerbitzuek makro-, mesonahiz mikro-kudeaketako erronka konplexuak daukate, eta horietako asko autonomia-esparruz haraindikoak dira.

- Osasun-laguntzaren integrazioa eta medikuntzaren lurralde antolaketa, espezialitateen arabera, XX. mendetik datorrena.

- Integrazio klinikoak, batez ere paziente zaharrei, pluripatologikoei eta ahulei eragiten diena.

- Azpiespezialitateen eta prozesuen arabera atomizatutako medikuntzak, XXI. mendeko teknomedikuntzaren bidez sortuak, kalitate nahiz segurtasun arazoak sortzen dizkio pazienteari, eta kolokan jartzen du osasungintza publikoaren nahiz medikuntza garaikidearen iraunkortasuna.

- Baliabide kliniko integratzaileak bultzatzea (bereziki, Oinarrizko Osasun Laguntza).

- Goi-mailako espezialitatearen plangintza eta kudeaketa.

IV. OSASUN MENTALEKO ERRONKAK

1. Gaixotasun mentala duen pertsona, sistemaren ardatz.

- Pertsonaren autonomia.

- Euste mekanikoaren praktika desagerrarazi behar da.

- Erabakiak pazientearekin partekatzea.

2. Haur eta nerabeen osasun mentala, lehentasun.

- Familia-testuinguruaren garrantzia.

- Haur eta nerabeen osasun mentalaren arloan sortzen ari diren arazoak: substantziarik gabeko jokabide adiktiboak (ziberadiktzioa eta ziberjazarpena), nerabezaroko portaera-nahasmenduak (gurasoekiko indarkeria eta indarkeria soziala), psikosiaren prodromoak eta lehen gertakari psikotikoak.

3. Laguntza-eskariaren eta baliabideen arteko oreka.

- Osasun mentaleko laguntza integraleko ereduak, laguntza-mailen printzipioekin bat.

- Zerbitzu elkarri lotuen sare baten bidez eman behar da osasun mentalaren arloko oinarri komunitarioko laguntza: osasun-zerbitzu orokorretan integratutako osasun mentaleko zerbitzuak, ospitale orokorretan eman ohi direnak espezializatu gabeko oinarrizko osasun-laguntzako langileekin lankidetzan; maila komunitarioko osasun mentaleko zerbitzu komunitarioak, tartean sar ditzaizketenak osasun mentaleko zentro eta ekipokomunitarioak, errehabilitazio psikosoziala, parekideen arteko laguntzako zerbitzuak eta eguneroko bizitzarako laguntza-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuetan eta ingurune ez-sanitarioetan osasun

mentaleko laguntza ematen duten zerbitzuak, esate baterako haurren babesa, eskola-osasuneko zerbitzuak eta espetxeetako laguntza.

- Depresioaren eta antsietatearen arloko laguntza dibertsifikatzeko eta zabaltzeko modu berritzaileak.

4. Suizidioaren prebentzioa.

- Suizidioaren prebentziorako estrategia garatzea, "suizidio kodea" barne.

- "Suizidio kodea" protokoloa: ospitaleko larrialdi zerbitzuko laguntza ospitaleko akutuen psikiatria zerbitzuarekin, zerbitzu ez ambulatorioen laguntzarekin integratzea.

- Ospitale tertziario bateko larrialdietara helzen diren suizidio-saiakerak jakinaraztea.

5. COVID-19 ikaskuntza.

- Laguntza psikiatrikoan laguntza emozionala emateko eredu berriak.

V. OSASUN PUBLIKOAREN ERRONKAK

1. Osasun publikoaren arloko erantzun berriak

- Kronikoen ereduarekin osatzea akutuen medikuntza.

- Gaixotasun infekziosoen nahiz ez infekziosoen kronikotasuna kudeatzea.

- Beste laguntza eredu ezberdin bateranzko aldaketa, gaixo kronikoei hobeki laguntzeko, sistemaren iraunkortasunari laguntzeko.

- Prebentzioa bultzatzea.

- Desberdinkeriak murriztea.

- Osasungintza eta gizarte-zerbitzuak integratzea eta koordinatzea.

- Profesionalei lidergoaren parte bat itzultzea.

- Determinatzaileak eta desberdinkeriak.

- Arrisku-faktoreak batera lantzea.

- Baldintza makroekonomikoei erreparatzea. Bereziki, pobrezari.

- Salutogenesia: Osasunaren kontzepzio biopsikosoziala eta ekologikoa.

- One Health: Gizakien, animalien eta ingurumenaren osasunaren interdependentzia.

- Osasuna eta gaixotasuna artatzeko zerbitzuen arteko oreka Osasun Departamentuan.

- Osasun publikoko sistema integratu bat garatzea.

- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua sendotzea.
- Ahal den neurrian, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua autonomia izatea.
- Osasun Publikoaren Institutuak Osasun Departamentuaren plangintzan eta emaitzen ebaluazio bateratuan parte hartzea.
- Osasun publikoaren eskumenak O-NOZerako normalizatzea, bereziki Oinarrizko Osasun Laguntzan. Baita ospitaleetan ere.
- Osasun publikoko programak esparru eta departamentu ezberdinetan integratzea (Ingurumena...).
- Osasun publikoak parte hartzen duen sektorearteko nahiz departamentuarteko organoak sortzeko aukera.
- Osasun publikoaren egitura indartzea. Eskumen efektiboak.
- Informazio-sistema integratua.
- Hiri eta herri atsegin eta osasungarriak garatzeko laguntza. Hirigintzaren, aire-kalitatearen, berdeguneen garrantzia.
- Elidadura-sistema justu, osasungarri nahiz ingurumenarekiko errespetutsuak babestea.
- Amiantoaren esperientzia. Erakundeen arteko koordinazioa: etxebizitza, garapen ekonomikoa, lana, osasuna, ingurumena...
- Lanean osasuna sustatzea.
- Enpresen kudeaketan prebentzioa integratzea.
- Enpresetan ingurune seguru eta osasungarriak sortzearen aldeko apustu egitea.
- Osasuna sustatzea.
- Osasunerako hezkuntza. Osasun-eskolak. Osasuna bizitza osoan zehar.
- Osasun Komunitarioaren Behatokia.
- Alerta goiztiarra eta erantzun azkarra prebentzioan.
- Txerto berriak.
- Minbizien baheketa. Ebaluazioa eta aholkularitza.
- Jaioberrien gaixotasunen eta metabolopatien detekzio goiztiarra.

2. Gobernantza eta kudeaketa:

- Gobernantza eta kudeaketa parte-hartzailea. Gardentasuna eta jarraitutasuna.
- Osasun kolektiboko politikak. Osasun publikoari buruzko plana.
- Erakundeen arteko koordinazioa.
- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren egiturak sendotzea (zuzendaritza eta zerbitzuak).
- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak osasun publikoaren sistema integratua zuzentzea eta kudeatzea.
- Beharrian berriekin, ikuspegi berriekin eta esparru berriekin bat datozen zerbitzuak garatzea.
- SIIVeren garapena bermatzea.
- Baliabide fisikoak bermatzea: azpiegitura, instalazio eta lan-ingurune egokiak.

3. Profesionaltasuna

- Garapen profesionala eta prestakuntza iraunkorra.
- Multiprofesionaltasuna: Profil ezberdinak.
- Ezagutze eta onura publikoan oinarritutako ekintzak.
- Osasungintzari arrotz zaion interesik gabe. Interesen deklarazioa.
- Lankidetzeta eta talde-lana.
- Ikerkuntza eta berrikuntza.

VI. IKERKETA

1. Ikerkuntzaren, irakaskuntzaren, ebaluazioaren eta berrikuntzaren arteko interrelazioa.
 - Ikerkuntza eta berrikuntza jarduerak ezin zein bere aldetik hartu, eta beste jarduera batzuekin batera jorratu beharko lirake; esate baterako, irakaskuntzarekin eta medikamentuen nahiz osasun-teknologiaren ebaluazioarekin.
2. Ikerkuntza eta berrikuntza Nafarroako Aurrekontu Orokorretan.
3. Egitura egoki baten eta gobernantza-eredu berri baten premia osasun arloko ikerkuntza sustatzeko eta emaitzen ebaluazioa egiteko.
 - Osasun Departamentuak behar bezala finantzatzea ikerkuntza.
 - Egitura egoki bat ezartzea Osasun Departamentuak bere helburu propioak izan ditzan ikerkuntzaren arloan, bai eta osasun arloko

ikerkuntzako emaitzak kudeatzeko eta ebaluatzeko gaitasuna ere.

4. Ikerkuntzaren sustapena.

- Ikerkuntzako profesionalen areagotzea ahalbidetzea.

- Areagotzearen mantentzea egindako lanaren ebaluazioaren arabera izatea.

- Ikerkuntzan laguntzeko zentroyen –Navarra-biomed– zerbitzu-zorroa handitzea, halako moduan non ahalbidetu eginen baita entsegu kliniko independenteak egitea, osasun-sistema publikoak sustatuta.

- Ikerkuntzarako aurrekontu egonkor bat ezartzea zerbitzu klinikoetarako (oinarrizko osasun laguntza barne), bai eta osasun publikorako nahiz premia hori duten gainerako departamentuetarako ere.

- Ikertzaileen prestakuntza ahalbidetzea erreferentziatzeko zentroetan.

- Ikerkuntza-proiektuak sortuko dituzten erreferentziatzeko unitate espezializatuak ezartzeko baldintzak sortzea.

- Ikerkuntza kliniko eta epidemiologikoa bultzatzea, berariazko aurrekontu-partiden bidez. Halaber, ikerkuntza sustatzea oinarrizko osasun laguntzaren esparruan, are gehiago egungoa bezalako garai batean, non bere erakargarritasuna eta prestigio akademikoa berreskuratu behar baititu.

- Legez jasotzea ikerkuntza-jarduera curriculumeko merezimendu bat izatea, laguntza-jardueraren parekoa gutxienez.

- Ikerkuntzaren arloko prestakuntza ematea graduurreko eta prestakuntza espezializatuko ikasleei.

5. Medikamentuen eta osasun-teknologiaren ebaluazioa.

- Osasunari buruzko foru lege berria jasotzea medikamentuen eta osasun-teknologiaren ebaluazioa jaso behar dela Nafarroako osasun sistema publikoaren esparruan.

- Ebaluazioa egiten duten organoek beren kideen interes-gatazkarik ezari dagokionez bete beharreko baldintzak zehaztea, horiei lege-maila egokia ematea eta horien izaera exekutibo eta loteslea sendotzea.

- Espazituki ezartzea medikamentuen, teknologiaren edo zerbitzuen hornitzaileak behartuta dagoen informazio guztia ematera, foru-organoren eskudunek horien produktuen ebaluazioa egin

ahal izan dezaten. Betebehar hori bete ezean, gogoan izan beharko litzateke zehapen ekonomiko nahiz bestelako zehapen zorrotzak ezartzeko aukera; esate baterako, O-NOZen prestazioen zorrotik kanpo geratzea.

6. Alderdi etikoak.

- Kudeaketa gardena egitea ikerkuntza-, irakaskuntza-, ebaluazio- eta berrikuntza-prozesu guztietan.

- Organo erabakitzaileetako kide guztien kasuan bermatzea interes-gatazkarik ez dagoela, ikertzaileak, klinikoak, pazienteak, kudeatzaileak, zuzendaritzako kideak edo osasun-sistemari arrotz zaizkion pertsonak izan organo erabakitzaileetako kide horiek.

- O-NOZeko profesionalen prestakuntza zerbitzu-hornitzaileetatik bereiztea. Nafarroako Gobernuak osorik hartu beharko luke bere gain langile propioen prestakuntza.

- Gardentasuna arautzea zerbitzu-hornitzaileekiko harremanari dagokionez, eta medikamentuen, teknologiaren edo zerbitzuen hornitzaileak behartzea dagoen informazio guztia ematera, foru-organoren eskudunek horien produktuen ebaluazioa egin ahal izan dezaten.

VII. GENEROA OSASUNGINTZAN

- Sexu/genero ikuspegia eta politika guztietan osasunean duen inpaktua zeharkakotzea.

- Osasunari eta gaixotasunari heltzean funtsezkoa da sexu/genero ikuspegia jasotzea, jarduna ona izan dadin.

- Diagnostikoan, prebentzioan nahiz tratamenduan beharrezkoa da sexua eta genero aintzat hartzea, hala ikerkuntzan nola klinikan. Hori ona da bai emakumezkoentzat bai gizonezkoentzat.

- Genero-desberdinkeriak eta generoari buruzko arau murriztaileak erabakigarriak dira, baina osasunetik eta ongizetatik bereiz daitezke.

- Generoari buruzko arauak botere eta pribilegio hierarkia ezartzen dute, eta gizonezkoari egin ohi diote mesede emakumezkoaren kaltetan, halako moduan non emakumeen eta neskatuen eskubideak ahultzen dituen desberdinkeria sistemiko bat sendotzen baita, eta emakumezkoek, gizonezkoek eta genero-gutxiengoek beren egiazko ni-a erakusteko aukerak murrizten.

- Genero-injustizia historikoa eta osasunarekin lotutako genero-desberdinkeria ondukoak emakumezkoen lepo joan ohi dira, bereziki emakume pobreen kasuan.

- Aitzitik, genero-arau zorrotzek ahuldu egiten dute pertsonen osasuna eta ongizatea, zein ere den pertsona horien adina, sexua, generoa edo diru-sarreraren maila.

- Genero-sistema gehienek legitimotasun txikiagoa eman ohi diete gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat onargarria den jokaera-dikotomia estu bati lotzen ez zaizkion genero-identitate edo -adierazpideei.

- Zaintza-lanak, gehien-gehienak, emakumezkoek egiten dituzte, eta hori ezinbestez hartu behar da gogoan laguntza-programetan (hala nola etxeko laguntzan, etxeko ospitaleratzean edo arazo kronikoak edo desgaitasuna duten pertsonen eta zaharren zaintzan), halako moduan non lan-zama ikusaraziko baita eta neurri osagarriak hartuko baitira (soldata, prestakuntza, laguntza emozionala) egoera horretan daudenentzat.